

Kultura (<https://www.argia.eus/kultura>) > **Literatura**
 (<https://www.argia.eus/literatura>) > **Komikia**
 (<https://www.argia.eus/komikia>)

'Tupust!' komiki antologia feminista aurkeztuko dute Donostian

“Ni” du izenburutzat Tupust!-en lehen zenbakiak. Hamalau istorio barnebiltzen ditu, eta hogeit hamar parte hartu dute bertan.

ARGIA (<https://www.argia.eus/argia-astekaria/egileak/argia>) @argia
 2019ko martxoaren 25a



Astelehenean emango dute ezagutzera Tupust! komiki antologia feminista (<https://tupust.tumblr.com/>), beronen lehen zenbakiak martxoan ikusi baitu argia. Donostian egingo dute aurkezpena, 12:00etan Komikigunean. Aurkezpenarekin batera, komikigileen lanekin osatutako erakusketa ere irekiko dute, 29ra arte ikusgai egonen dena.

Amets Gurbiola Negugogorrek koordinatu du Tupust!-en lehen zenbakia, eta Txalaparta argitaletxeak argitaratu (<https://www.txalaparta.eus/eu/liburuak/tupust>). Hogeit hamar parte hartu dute, eta hamalau istorio osatu, *nia* ardatz dutenak. “Lehen edizio honen gaia “Ni” da eta, ondorioz, antologia hau osatzen duten istorio guztiak gorputzen dira niaren

inguruan”, azaldu du komiki antologia aurrera atera duen kolektiboak. Gai berbera izan arren, irakurleak askotariko istorioak aurkituko dituela aurreratu dute: “Batziek testuaren laguntza dute, beste batzuk soilik irudiak erabiliz eraiki dira. Batziek bineta, marrazki eta testu asko dituzte orrialde bakoitzeko, beste orrialde batzuk irudi (mutu) bakarrarekin betetzen dira”.

Egile profesionalak eta amateurrak elkarrekin aritu dira lan honetan. Kolektiboaren arabera, oso garrantzitsua baita maila ezberdineko egileak nahastea “hasiberriak direnei inpultsua eman” eta “lehen aukera bat eskaintzeko”.

Antologia feminista

Tupust!-ek badakar berrikuntza nabarmen bat Euskal Herriko komikigintzara: ikuspegi feminista. “Euskal Herrian oso iraultzaileak izan gara gai jakin batzuen inguruan, baina oso tradizionalak genero-sexu rolen eraikuntzan, estereotipoen betiketzean”, azaldu du kolektiboak. Komikigintza ez da tradizio horretatik salbatu, eta kolektiboko kideen arabera, umorea eta satira bezalaxe, maskulinitateek gobernaturiko esparrua izan da.

“Egoerari erreparatzerakoan, harrigarriki beldurtu gintuen ikusteak zeinen tradizional eta heteronormatibo (izan) garen istorioen nahiz gorputzen sorkuntzan eta zeinen espazio gutxi (izan) duten ikuspegi binario horri kontra egin eta haratago joateko nahia (izan) duten sortzaileek. Bazterretik jardun behar izan dutenak baztertuak (izan) dira”, azaldu du kolektiboak.

Hala bada, “sorkuntza zurruneekin apurtzeko”, “kontatu nahi dugun hori kontatzeko” eta “Hemen gaude!” esateko asmoarekin abiatu dute Tupust!.

Kolektibo bat atzean

Tupust! komiki antologiaren atzean izen bereko kolektibo oso bat dago, 2016an Donostian jaio zena. Honen helburuen artean ondokoak nabarmendu dituzte: komikia eta feminismoa uztartzea; egileen arteko komunitate bat osatzea; sare hori baliatu ahal izatea lan/proiektu berriak abiarazteko zein izan ditzaketen zalantzak partekatzeko; eta kolektiboaren intereseko hitzaldi, erakusketa, egitasmo eta abarrak antolatzea eta sustatzea.

ARGIAN egiten dugun **kazetaritza independenteak** bultzada merezi duela uste duzu?

Informazio askea lantzen dugu ARGIAN, langileok gara proiektuaren jabeak eta gure informazioen atzean ez duzu sekula multinazionalik, bankurik edo alderdi politikorik topatuko. Gure ustez, burujabetza guztien oinarrian dago informazio